

AIAKO XVIII. ARGAZKI LEHIAKETA

GAIA: *Librea, beti ere herriarekin lotuta.*

PARTEHARTZAILEAK: Lehiaketa honetan parte hartzeko ez dago adin mugarik, baina argazkiak orijinalak izan behar dute, hau da, lehendik argitaratu edota lehiaketetara aurketu gabekoak.

ARGAZKIAK: Partehartzaile bakoitzak gehienez **4 argazki** aurkez ditzake, koloretan edo txuribeltzean izan daitezkeenak. Argazkiak 2023 edo 2024 urteetan ateratakoak izan behar dute. Pendrive batean eta argazkietako paperean aurkeztu behar dira, 30x20cm. tako neurrian eta **formatu horizontalean**. Argazkiak (bakoitzat bere titulua atzean duela) gutunazal batean aurkeztu behar dira eta barnean, partehartzailearen izen-abizenak, nongoa den, harremanetarako telefono zenbakia, posta elektronikoa, argazkiaren izenburua eta ateratako data jarri beharko dira.

ARGAZKIAK AURKEZTEKO EPE ETA LEKUA: 2024ko irailaren 30 arte aurkeztu daitezke Aiako Kultur Etxean.

SARIAK: 2 sari multzo egongo dira, bat Aian erroldaturikoei zuzendua (deialdi honen aurretik), bestea erroldatu gabekoi zuzendua. Sariak kopuru berdinekoak izango dira eta pertsona batek ezinezkoa izango du sari bat baino gehiago jasotzea:

1. Saria: 200 euro
2. Saria: 170 euro
3. Saria: 120 euro

Gainera, otar bat zozketatuko da sarituak izan ez direnen artean.

EPAIMAHAIK: honek aztertuko du lehiaketara aurkeztutako argazkiak kalitate eta gaiari loturiko baldintzak betetzen dituzten ala ez. Onartutako guztiekin erakusketa jarriko da Kultur Etxean, non ikuslegoen botoekin erabakiko dira irabazleak eta 2024ko egutegia osatuko duten argazkiak.

ARGAZKIEN JABETZA ETA ITZULTZEA: Lehiaketara aurkeztutako argazkiak Udalaren esku geratuko dira eta honek erabiltzeko, erreproduzitzeko eta hedatzeko eskubidea izango du egilearen izena aipatuaz.